I. ERANSKINA

ETIKAREN ETA GOBERNU ONAREN KODEA

Lehena. Xedea

Etikaren eta Gobernu Onaren Kode honen xedea da zehaztea zer oinarrizko portaera-printzipio eta -arau bete behar dituzten aplikazio-eremu subjektiboaren barruko langileek, Administrazioak erakunde gisa dituen helburuak behar bezala bete ditzan, eta Euskadiko herritarren nahiak bete daitezen legez ezarritakoaz haratagoko gardentasun- eta eraginkortasun-esparru batean, Euskadiko gizartearen garapen ekonomiko, sozial eta kulturala bultzatuz.

Etikaren eta Gobernu Onaren Kode honi esker, Kodea bete behar duten pertsonek lehendik bete beharreko lege- eta arau-ezarpenak indartuko dira, eta Kodearen oinarrian dauden printzipioak eta xedeak kontuan hartuz bete beharko da indarrean dagoen araudia.

Bigarrena. Aplikazio-eremu subjektiboa

Honako hauek bete beharko dituzte Etikaren eta Gobernu Onaren Kode honetako etika- eta portaera-arauak: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren zerbitzura dauden gobernuko kideek, goi-karguek, aldi baterako langileek eta gainerako zuzendaritza-karguek, bai eta Euskal Herriko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legeko 7. artikuluan ezarritako sailkapenaren arabera Administrazio Orokor horren mendekoak diren erakunde autonomo, zuzenbide pribatuko erakunde publiko, sozietate publiko eta sektore publikoko fundazio eta partzuergoen zerbitzura daudenek ere. Autonomia-erkidegoko administrazioaren parte-hartzea txikia bada, administrazioak hitzarmenak egin daitezen sustatuko du, haren parte-hartzea duten erakundeek beren Etikaren eta Gobernu Onaren Kodea onar dezaten edo, hala badagokio, aipatutako administrazioaren jarduera arautzen duena har dezaten.

Hirugarrena. Printzipio orokorrak

Kode honen aplikazio-eremuaren barruko pertsonek, beren funtzioak betetzerakoan, Espainiako Konstituzioak, Euskadiko Autonomia Estatutuak eta gainerako antolamendu juridikoak ezarritako printzipioak beteko dituzte, balio eta printzipio demokratikoez gain, eta honako printzipio eta balio etiko hauek ere beteko dituzte: neutraltasuna eta objektibotasuna; efikazia, efizientzia eta

errentagarritasun soziala; dedikazio osoa, fede ona eta eredugarritasuna; austeritatea eta zintzotasuna; gardentasuna, irisgarritasuna eta konfidentzialtasuna; herritarren parte-hartzea eta lankidetza; eta erantzukizuna eta elkarlana.

Laugarrena. Balio eta printzipio demokratikoak errespetatzea

1. Kode hau bete behar duten pertsonek indarrean dauden Konstituzioa eta Estatutua errespetatuko dituzte, haietan jasotzen diren balio eta printzipio demokratikoak aplikatuko dituzte eta zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoa sustatuko dute beren jardueretan, eta berdintasun, askatasun, justizia eta aniztasun politikoaren printzipioak betetzen direla bermatuko dute.

2. Haien portaerak giza eskubideak eta askatasun publikoak errespetatuko ditu guztiz.

3. Beren jardueretan, indarkeriaren deslegitimazio sozial eta politikoa eta terrorismoaren biktimen oroimena sustatuko dituzte, bai eta bestelako indarkeria politiko edo sozialaren biktima izan direnen oroimena ere.

4. Ez dute jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi, sexu-joera edo bestelako egoera pertsonal, politiko edo sozialen batengatik diskriminazioa sor dezakeen jarduerarik egingo.

5. Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko benetako berdintasuna sustatuko dute, helburu hori lortzea zaildu dezaketen oztopo guztiak kenduz.

6. Tolerantziaz jokatuko dute, eta aniztasuna sustatuko dute beren jardueretan. Horrek esan nahi du forma kultural, politiko eta sozial guztiak errespetatuko dituztela, aintzat hartuko dituztela eta onartuko dituztela, betiere giza eskubideak errespetatzen badituzte eta indarkeriarik erabiltzen ez badute.

7. Beren jarduera-eremuan, klima-aldaketaren aurka borrokatzeko politikak, ingurumena babestekoak eta lurraldearen zentzuzko antolamendu iraunkorraren aldekoak sustatuko dituzte.

Bosgarrena. Neutraltasuna eta objektibotasuna

8. Erabakiak hartzean, objektibotasuna erabiliko da pertsonekin, eta inpartzialtasuna legearen arabera onargarriak diren aukerekin. Interes orokorra gailenduko da beti, eta kontsiderazio pertsonalek edota familia-, korporazio-, bezero- edo adiskidetasun-kontsiderazioek ezin izango dute printzipio hori kaltetu.

9. Ez dute eragingo pertsona baten mesedetan izapide administratiboak bizkortu edo ebatz daitezen, eta, bereziki, beraien mesedetan edo beren familia edo gizarte-ingurunearen mesedetan.

10. Azken batean, ez dute boterea erabiliko abantailak edo onurak lortzeko, bereziki informazio-abantailak, abantaila erregulatzaileak eta/edo haien agintaldiaren ondorioz sor daitezkeen edo harekin lotuta dauden abantailak lortzeko.

Seigarrena. Efikazia, efizientzia eta errentagarritasun soziala

1. Efikazia, ekonomia eta efizientziaren printzipioen arabera jardungo dute, interes orokorra eta administrazioaren helburuak betez betiere.

2. Administrazio publikoaren profesionalizazioa eta ongi egindako lanaren aitorpena bultzatzen dituzten karrera- eta trebakuntza-politikak eta -programak sustatuko eta bermatuko dituzte.

Zazpigarrena. Dedikazio osoa, fede ona eta eredugarritasuna

1. Kodearen mende dauden gobernuko kideek, goi-karguek eta gainerako zuzendaritza-kideek zerbitzu publikoari dedikazio osoa eskainiz egingo dituzte beren funtzioak, une bakoitzean indarrean dagoen bateraezintasun-erregimena behar bezala betez.

2. Alderdi politikoetako organo exekutiboetan edo zuzendaritza-organoetan kargua edukitzeak ez ditu kaltetuko edo eragotziko beren karguagatik dituzten erantzukizunak.

3. Dagozkien funtzioak egiterakoan edo betebeharrak betetzerakoan, ardura handiz arituko dira, haien jarduera erreferentzia izan dadin langile publikoentzat.

4. Tratu egokia, duina eta errespetuzkoa emango diete langile publikoei, langile horiek erakundearen definizioan, helburuetan eta emaitzetan partaide eginez, eta lan-giro atsegina sustatuz.

Zortzigarrena. Austeritatea eta zintzotasuna

1. Baliabide publikoak austeritatez administratuko dituzte, eta ez dituzte modu desegokian erabiliko duten karguagatik administrazioak beren eskura jartzen dituen ondasunak eta zerbitzuak; horretarako, modu arduratsuan kontsumituko dute, eta baimenduta dituzten protokolo-gastuak eta ordezkaritza-gastuak mugatuko dituzte.

2. Harreman komertzial eta finantzarioetan, gainerako herritarrek bete beharreko betebehar eta baldintza berberak beteko dituzte, eta ez dute justifikatu gabeko mesederik edo abantailarik onartuko.

3. Ez dute onartuko abantaila-egoeraren batean eskainitako zerbitzurik, oparirik edo mesederik, baldin eta kortesiazko ohiko erabilera sozialetik haratago badoa zenbatekoagatik edo kausagatik edo beren lanaren neutraltasuna edo objektibotasuna kaltetu badezake. Esanahi instituzionaleko edo balio handiko opariak, hala badagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko ondarera gehituko dira, Euskadiko Ondareari buruzko azaroaren 17ko 5/2006 Legeari jarraiki.

4. Goren Kargudunen Lansariei buruzko 14/1988 Legeak 3.1 artikuluan adierazitako gastuak austeritatearen eta proportzionaltasunaren irizpideei jarraiki egin beharko dira.

Bederatzigarrena. Gardentasuna eta konfidentzialtasuna

1. Beren jarduera Euskadiko gizarte osoaren aurrean gardena izateko printzipioa bete beharko dute, isiltasuna gordetzearen eta konfidentzialtasunaren betebehar legalak alde batera utzi gabe.

2. Konfidentzialtasunari eutsiko diote, erakundea utzi edo han baja hartutakoan ere, beren lanaren ondorioz jakin dituzten datu eta informazioei dagokienez.

Hamargarrena. Herritarren parte-hartzea eta lankidetza. Gobernu Irekiaren printzipioak.

1. Beren kudeaketa publikoak herritarrak oso kontuan hartuko dituela bermatuko dute, emandako informazioaren, arretaren eta zerbitzuen kalitatea etengabe hobetzeko konpromisoarekin.

2. Herritarrek zerbitzu publikoen funtzionamendua ezagutzeko duten eskubidea erabil dezaten sustatuko dute, legeek ezartzen dituzten mugekin, eta herritarren eskaera, kexa edo erreklamazioei azkar eta era eraginkorrean erantzuteko mekanismoak bermatuko dituzte.

3. Herritarrek politika publikoen diseinuan eta haien ebaluazioan parte har dezaten eta alor horretan lankidetzan aritu daitezen bermatzeko behar diren tresnak bultzatuko dituzte; eskuragarri dauden baliabide guztiak erabiliko dira horretarako, telematikoak barne, demokrazia esku-hartzailea garatzeko.

4. Estatistikak, datu-baseak, gobernuak on line dituen atariak eta, oro har, herritarrek informazioa eta zerbitzu publikoak eskuragarriago izatea eta langileen barruko lana errazten duen guztia sortzea, hobetzea eta denon artean erabiltzea sustatuko dute.

5. Administrazio abegikorra eta irisgarria bultzatuko dute, pertsona guztiek ulertzeko moduko administrazio-hizkera garbia erabiliz, prozedurak erraztuz eta bizkortuz, zerbitzuetara sartzeko sarbide elektronikoak jarriz eta arau eta erregulazioen kalitatea hobetuz.

6. Datu pertsonalak babestuko direla bermatuko dute, bai eta dokumentu ofizialak behar bezala sailkatu, erregistratu eta artxibatuko direla ere, eta pertsona guztiek autonomia-erkidegoko administrazio publikoaren eskuetan dauden datu pertsonalak jakiteko eta eguneratzeko duten eskubidea aitortuko dute.

7. Interes-taldeen parte-hartzea eta haiekin hitz egitea sustatuko dute, parte-hartze eta kontsulta soilaz haratago, politika publikoen diseinuan parte har dezaten lortzeko, eta, hartara, ezagutza eta berrikuntza bultzatzeko.

Horretarako, harremanetan dagoen eta hitz egiteko prest dagoen administrazio bat bultzatuko dute, herritarrei eta eragile ekonomiko, sozial eta kulturalei kontsulta egiten diena eta parte hartzera bultzatzen dituena, beharrezko diren bide eta baliabideak erraztuz eta asoziazionismoa eta hiritarren boluntariotza sustatuz.

Hamaikagarrena. Erantzukizuna eta elkarlana

1. Beren jardueren erantzukizuna onartuko dute, eta ez dute mendekoen gain jarriko arrazoi objektiborik gabe; horrez gain, maila instituzional guztiekin elkarlanean arituko dira, eskumenen egungo esparrua errespetatuz, interes orokorrari era efikaz eta eraginkorragoan laguntzeko.

2. Sarean lan egingo dute, eta gobernuak ongi funtzionatzeko interesgarriak diren elkarlaneko ekintza eta lan guztietan parte hartuko dute.

Hamabigarrena. Beste batzuk

Gobernuko kideen eta goi-karguen protokolozko trataera ofiziala jauna/andrea izango da, kargu, postu, lan edo mailaren izena aurretik duela.

II. ERANSKINA

Etikaren eta Gobernu Onaren Kodera Atxikitzeko Aitorpena

Behean sinatzen duenak, Jaurlaritzaren Kontseiluak ……..(data)……n onartutako Etikaren eta Gobernu Onaren Kodeko edukia kontuan hartuta, hau aitortzen du:

1.- Goiburuan adierazitako Kodearen ale bat duela, eta ale horrek …….. artikulu eta eranskin bat dituela.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Etikaren eta Gobernu Onaren Kodea, Jaurlaritzaren Kontseiluak goian adierazitako datan onartua, irakurri eta ulertu duela.

3. Kodearen edukira atxikitzen dela baldintza guztietan, eta han adierazten diren printzipio eta betebehar guztiak betetzeko konpromisoa hartzen duela.

4. Kodea zabaldu eta aplika dadin errazteko konpromisoa onartzen duela, horretarako beharrezko diren baliabideak jarriz.

…..

Eta hala jasota gera dadin, dagozkion ondorioetarako, honako hau sinatu dut ……(e)n
20……..(e)ko .....ren .....(e)an

Izpta.:
……. Sailburuordetza, Idazkaritza Nagusia edo Zuzendaritza
…….. Saila